

**2014KO EKAINAREN 25EAN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bosta

HILABETEA: Ekaina.

URTEA: Bi mila eta hamalaua.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko zortziak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Bigarrena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika.

BILDUA: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2014ko maiatzaren 22ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute.

2.- OBRAK KONTRATATZEA. Kale asfalketa.

Ezagutzera eman da, zerbitzu batzordearen proposamena, hau da:

“**Lehenik.** Kale asfaltatze lanak prozedura irekiaren bitartez kontratatzeko deialdi publikoa egitea, baldintza plegu administratiboa nahiz teknikoa onartuz.

1.- *Prozedura:* irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea:* arrunta

3.- *Lizitazio prezioa:* 78.044,37 € BEZ kanpo, 94.433,69 € BEZ barne.

4.- *Egikaritze epea:* 2 aste.

5.- *Kaudimen ekonomiko, finantziario eta teknikoari buruzko agiriak:*

a) Enpresa sailkapena: G taldea, 4 azpitaldea, e kategoria.

6.- *Espedientea*: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

7.- *Proposamen eredia*: Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.

8.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua*: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan.

9.- *Adjudikazio irizpideak*:

Proposamen ekonomikoa 90 puntu

Atal honetako balioespena egiteko, Zerbitzu Teknikoek, beharrezkoa ikusiz gero, aldez aurretik aurkeztutako eskaintzak homogeneiza ditzake.

Puntuazioa emateko honela jardungo da:

1. BALIOZKOTZAT jotako eskaintza GUZTIAK zenbatekoaren hurrenkeran (goitik behera) antolatuko dira.
2. Ekonomikoena suertatzen den eskaintzak 90 puntu jasoko ditu eta A ESKAINTZA izendatuko da.

Beste edozein eskaintza, B izendatua, horrela balioetsiko da:

$B \text{ ESKAINTZAREN PUNTUAKETA} = 90 - (100 + ((1 - (A \text{ eskaintzaren kopurua} / B \text{ eskaintzaren kopurua}) * 100)))$.

- Euskera: 5 puntu

Jarraian adierazten diren dokumentuaren bat enpresak beraien eskaintzak egiterakoan aurkezten badituzte 5 puntu emango zaizkie:

- EUSKERA sustatzeko ziurtagiria, hala nola "BAI EUSKARARI", "BIKAIN" edo antzeko izaera dutenak

- Berdintasuna: 5 puntu

Enpresan emakumearen sustapena lortzeko kreditatzen duen ziurtagiria aurkezten dituzten eskaintzei 5 puntu emango zaizkie.

Egiaztagiria modu honetan egingo da:

- Gobernu Estatalak edo EMAKUNDEk emandako berdintasunari agiria edo organismo publikoaren batek emandako antzeko agiria.

10.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua:* plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- *Aurkeztu beharreko agiriak:* Lizitzaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- OBRAK ESLEITZEA

1.- Alkartasuna Lizeoko berrikuntza obrak.

Ezagutzera eman da, 2014ko ekainaren 23ko kontratazio mahaiaren proposamena:

“AURREKARIAK

1.- 2014ko maiatzaren 7an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, Alkartasuna Lizeoko berrikuntza obrak kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz. Lizitazio prezioa, 99.007,71 €tan gehi BEZ, finkatu zen eta egikaritze epea 6 aste.

2.- Deialdia, 2014ko maiatzaren 14an argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 26 eguneko epean, lizitazioa bost enpresa aurkeztu ziren.

3.- Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, enpresa bati dokumentazioa osatzeko eta zuzentzeko errekerimendua egin zitzaion. Errekeritutako dokumentazioa aurkeztu zuen eta horren ondorioz denak onartuak izan ziren lizitazioan parte hartzeko.

4.- Ekainaren 23an proposamen ekonomikoei buruzko kartazala ireki zen, emaitza ondorengoa izan delarik:

Lizitazio prezioa BEZ gabe / Precio de licitación sin IVA: **99.007,71 €.**

	LIZITATZAILEAK	PREZIOA / PRECIO BEZ GABE	EGIKARITZE EPEA / PLAZO DE EJECUCIÓN	ZIURTAGIRIAK CERTIFICADOS

1	CONSTRUCCIONES PEDRO IPARRAGUIRRE S.L Erregistro sarrera zenbakia: 2067	72.969,44	4 aste	Euskara: bai Berdintasuna: ez
2	GOITU ERAIKUNTZAK, S.L Erregistro sarrera zenbakia: 2087	77.323,77	4 aste	Euskara: ez Berdintasuna: bai
3	CONSTRUCCIONES ALBOKA S.L Erregistro sarrera zkia: 2164	83.020,46	4 aste	Euskara: ez Berdintasuna: ez
4	CONSTRUCCIONES HUGAR S.L Erregistro sarrera zkia: 2139	90.964,97	4 aste	Euskara: ez Berdintasuna: ez
5	FREYSSINET, S.A. Erregistro sarrera zkia: 2187	78.991,73	4 aste	Euskara: ez Berdintasuna: ez

Baldintza pleguan ezarritako esleipen irizpideak ondorengoak dira:

a) Proposamen ekonomikoa 90 puntu

Atal honetako balioespena egiteko, Zerbitzu Teknikoek, beharrezkoa ikusiz gero, aldez aurretik aurkeztutako eskaintzak homogeneiza ditzake.

Puntuazioa emateko honela jardungo da:

- 1.BALIOZKOTZAT jotako eskaintza GUZTIAK zenbatekoaren hurrenkeran (goitik behera) antolatuko dira.
- 2.Ekonomikoena suertatzen den eskaintzak 75 puntu jasoko ditu eta A ESKAINTZA izendatuko da.

Beste edozein eskaintza, B izendatua, horrela balioetsiko da:

B ESKAINTZAREN PUNTUAKETA = $75 - (100 + ((1 - (A \text{ eskaintzaren zenbatekoa} / B \text{ eskaintzaren zenbatekoa}) * 100)))$

b) Epea. 15 puntu

15 puntu jasoko ditu aurkeztutako eskaintza guztien artean eperik laburrena aurkezten duenak. Gainerako eskaintzak ondorengo baremoaren arabera puntuatuko dira:

Epea

Puntuazioa

4 aste edo gutxiago 15

4,01 eta 5 aste artean 7.5

5,01 eta 6 aste artean 0

c) Euskera. 5 puntu

Jarraian adierazten diren dokumentuaren bat enpresak beraien eskaintzak egiterakoan aurkezten badituzte 5 puntu emango zaizkie:

EUSKERA sustatzeko ziurtagiria, hala nola "BAI EUSKARARI", "BIKAIN" edo antzeko izaera dutenak eta kontratua exekutatzekoan ezaugarri horiek aplikatzen badituzten.

d) Berdintasuna. 5 puntu

Enpresan emakumearen sustapena egiten dela kreditatzen duen ziurtagiria aurkezten duten eskaintzei 5 puntu emango zaizkie.

Egiaztagiria modu honetan egingo da:

Gobenu Estatalak edo EMAKUNDE emandako berdintasunari agiria edo organismo publikoaren batek emandako antzeko agiria.

2014ko ekainaren 23an udal aparejadoreak txostena eman du aurkeztutako eskaintza ekonomikoei buruz (bajak, prezioen desglosea).

Lizitazioan parte hartu duten enpresa bakoitzak lortutako puntuak batu ondoren esleipen-irizpide desberdinekiko, emaitza ondorengoa da:

	LIZITATZAILEAK	PREZIOA	EPEA	EUSKERA BERDINTASUNA	PUNTUAK
1	CONSTRUCCIONES PEDRO IPARRAGUIRRE S.L Erregistro sarrera zenbakia: 2067	75	15	5+0	95
2	GOITU ERAIKUNTZAK, S.L Erregistro sarrera zenbakia: 2087	68,37	15	0+5	88,37
3	CONSTRUCCIONES ALBOKA S.L Erregistro sarrera zkoa: 2164	61,89	15	0+0	76,89
4	CONSTRUCCIONES HUGAR S.L Erregistro sarrera zkoa: 2139	54,22	15	0+0	69,22

5	FREYSSINET, S.A. Erregistro sarrera zkoa: 2187	66,38	15	0+0	81,38
---	--	-------	----	-----	--------------

Beraz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Alkartasuna Lizeoko berrikuntza obrak CONSTRUCCIONES PEDRO IPARRAGUIRRE S.L.ri esleitzea, 72.969,44 €ko prezioan gehi 15.323,58 € (BEZ). Guztira, 88.293,02 €. Egikaritze epea, lau astekoa izango da.

Bigarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar laneguneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga betebeharretan eta gizarte segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak.
- 1.459,39 €ko behin betiko fidantza eratzea.

Hirugarren. Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laneguneko epean, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanaz. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketaren eginda, aho batez onartu da proposamena.

2.- Murumendi ikastetxeko berrikuntza obrak.

Ezagutzera eman da, 2014ko ekainaren 23ko kontratazio mahaiaren proposamena:

AURREKARIAK

1.- 2014ko maiatzaren 7an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, Murumendi ikastetxeko berrikuntza obrak kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz. Lizitazio prezioa, 138.519,40 €tan gehi BEZ, finkatu zen eta egikaritze epea 6 aste.

2.- Deialdia, 2014ko maiatzaren 13an argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 26 eguneko epean, lizitazioa bost enpresa aurkeztu ziren.

3.- Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, bi enpresei dokumentazioa osatzeko eta zuzentzeko errekerimendua egin zitzaion. Errekeritutako dokumentazioa aurkeztu zuten eta horren ondorioz denak onartuak izan ziren lizitazioan parte hartzeko.

4.- Ekainaren 23an proposamen ekonomikoei buruzko kartazala ireki zen, emaitza ondorengoa izan delarik:

Lizitazio prezioa BEZ gabe / Precio de licitación sin IVA: **138.519,40 €.**

	LIZITATZAILEAK	PREZIOA / PRECIO BEZ GABE	EGIKARITZE EPEA / PLAZO DE EJECUCIÓN	ZIURTAGIRIAK CERTIFICADOS
1	CONSTRUCCIONES PEDRO IPARRAGUIRRE S.L Erregistro sarrera zenbakia: 2068	127.155,78	4 aste	Euskara: bai Berdintasuna: ez
2	GOITU ERAIKUNTZAK, S.L Erregistro sarrera zenbakia: 2087	119.644,61	6 aste	Euskara: ez Berdintasuna: bai
3	URBYCOLAN, S.L Erregistro sarrera zkia: 2061	111.512,29	6 aste	Euskara: bai Berdintasuna: ez
4	CONSTRUCCIONES HUGAR S.L Erregistro sarrera zkia: 2121	116.335,66	6 aste	Euskara: ez Berdintasuna: ez
5	OTEGI ERAIKUNTZAK, S.L. Erregistro sarrera zkia: 2115	126.843,67	8 aste	Euskara: ez Berdintasuna: ez

Baldintza pleguan ezarritako esleipen irizpideak ondorengoak dira:

e) Proposamen ekonomikoa 90 puntu

Atal honetako balioespena egiteko, Zerbitzu Teknikoek, beharrezkoa ikusiz gero, aldez aurretik aurkeztutako eskaintzak homogeneiza ditzake.

Puntuazioa emateko honela jardungo da:

- 1.BALIOZKOTZAT jotako eskaintza GUZTIAK zenbatekoaren hurrenkeran (goitik behera) antolatuko dira.*
- 2.Ekonomikoena suertatzen den eskaintzak 75 puntu jasoko ditu eta A ESKAINTZA izendatuko da.*

Beste edozein eskaintza, B izendatua, horrela balioetsiko da:

$$B \text{ ESKAINTZAREN PUNTUAKETA} = 75 - (100 + ((1 - (A \text{ eskaintzaren zenbatekoa} / B \text{ eskaintzaren zenbatekoa}) * 100)))$$

f) Epea. 15 puntu

15 puntu jasoko ditu aurkeztutako eskaintza guztien artean eperik laburrena aurkezten duenak. Gainerako eskaintzak ondorengo baremoaren arabera puntuatuko dira:

Epea

Puntuazioa

4 aste edo gutxiago 15

4,01 eta 5 aste artean 7.5

5,01 eta 6 aste artean 0

g) Euskera. 5 puntu

Jarraian adierazten diren dokumentuaren bat enpresak beraien eskaintzak egiterakoan aurkezten badituzte 5 puntu emango zaizkie:

EUSKERA sustatzeko ziurtagiria, hala nola "BAI EUSKARARI", "BIKAIN" edo antzeko izaera dutenak eta kontratua exekutatzerakoan ezaugarri horiek aplikatzen badituzten.

h) Berdintasuna. 5 puntu

Enpresan emakumearen sustapena egiten dela kreditatzen duen ziurtagiria aurkezten duten eskaintzei 5 puntu emango zaizkie.

Egiaztagiria modu honetan egingo da:

Gobenu Estatalak edo EMAKUNDE emandako berdintasunari agiria edo organismo publikoaren batek emandako antzeko agiria.

Lizitazioan parte hartu duten enpresa bakoitzak lortutako puntuak batu ondoren esleipen-irizpide desberdinekiko, emaitza ondorengoa da:

	LIZITATZAILEAK	PREZIOA	EPEA	EUSKERA BERDINTASUNA	PUNTUAK
1	CONSTRUCCIONES PEDRO IPARRAGUIRRE S.L Erregistro sarrera zenbakia: 2068	61,70	15	5+0	81,70
2	GOITU ERAIKUNTZAK, S.L Erregistro sarrera zenbakia: 2087	67,20	15	0+5	87,20

3	URBYCOLAN, S.L Erregistro sarrera zkoa: 2061	75,00	15	0+0	95,00
4	CONSTRUCCIONES HUGAR S.L Erregistro sarrera zkoa: 2121	69,85	15	0+0	84,85
5	OTEGI ERAIKUNTZAK, S.L. Erregistro sarrera zkoa: 2115	61,91	15	0+0	61,91

Beraz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Murumendi ikastetxeko berrikuntza obrak URBYCOLAN S.L.ri esleitzea, 111.512,29 €ko prezioan gehi 23.417,58 € (BEZ). Guztira, 134.929,87 €. Egikaritze epea, sei astekoa izango da.

Bigarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar laneguneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga betebeharretan eta gizarte segurantzan eguneratuta egotearen agiriak.
- 5.575,62 €ko behin betiko fidantza eratzea.

Hirugarren. Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laneguneko epean, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanaz. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- ZERGA ZORREN BAJA

Aho batez ondorengo, Hazienda batzordeko proposamena onartu da:

“**GAIA.**- Zerga zorren (zerga, tasa eta prezio publikoak) eta zergazkoak ez diren zorren (isunak) baja proposamena.

AURREKARIAK

Bilketa exekutiborako bulegoak, premiamendu espedienteak izapidetu eta gero hainbat zergadun ezagunen, zorrari aurre egiteko, ondasun edota eskubide eza egiaztatu ondoren, haien baja proposamena aurkezten du.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arauaren 74. Artikuluak ondorengo azaltzen du:

“Zerga zorra ezin izan bada zergabilketa prozeduretan kobratu zergapekoen kaudimengabezia oso zein partzialagatik, eta kaudimengabezia hori frogatuta badago, zerga zorra kreditu kobraezin joko da, erabat edo zati batean, preskripzio epearen barruan kobratzeko moduan jartzen ez den bitartean foru arau honen 177.2 artikuluan jasotakoaren arabera.”

2.- Bestalde, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamenduaren 61 artikulua xedatzen du:

“Ordaintzera behartutakoei ez bazaie ezagutzen zor osoa kobratzeko bahitu edo gauzatu daitekeen ondasun edo eskubide nahikorik, huts egindako zorduntzat hartuko dira.

(...)

Kreditu kobraezintzat hartuko dira ordaintzera behartutakoak huts eginak izateagatik premiamenduzko prozeduran kobratu ezin izan diren kredituak.”

Hau guztia ikusirik, Hazienda Batzordeak Gobernu Batzordearen onespenerako aurkezten du ondorengo

PROPOSAMENA

Lehenik.- Kontzeptuka ondorengo kopurukoak diren eta guztira 25.782,28 eurokoa den atxikitako zerrendako zorrei baja ematea proposatzea Gobernu Batzordeari:

- Ibilgailuen zerga: 13.475,08 €

- Zaborbilketa tasa: 662,01 €
- Ura eta estolderia: 1.635,99 €
- Iragarkiak: 19,29 €
- Erakusleihoak: 96,16 €
- J.E.Z. : 4.198,37 €
- Ganbara kuota: 177,10 €
- O.H.Z.: 1.483,56 €
- Azoka tasa: 74,42 €
- Gainbalioaren zerga: 1.040,90 €
- Beladoreen tasa: 388,02 €
- E.I.O.Z.: 831,02 €
- Irekiera lizentziaren tasa: 727,13 €
- Hirigintzako lizentzia tasa: 454,06 €
- Trafiko isunak: 430,00 €
- B.E.Z.: 89,17 €

Bigarren.- Izapidetutako expedientea jendaurrean jartzea, G.A.Oean iragarkia argitaratuz, 15 laneguneko epean. Adierazitako epea amaitu edta inolako erreklamaziorik izaten ez bada, behin-betirako onartutzat joko dira bajak eta kontabilitatean jasoko da horren isla.”

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko gairik ezean, bilera zortziak eta hogeitun minutu amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.